



PLT-C-2019-0014
GP/gn

**ZERBITZU HAUEK EMATEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN
AGIRIA: ASTIGARRAGAN, GI-2132 ERREPIDEA 27.
POLIGONOAREKIN LOTZEKO LANEK ERAGINDAKO 20903-
00095 LURZATI INBENTARIATUAREN AZALEKO
LURZORUAREN KALITATEA AZTERTZEA**

2-NC-108/2017-ES



PLT-C-2019-0014
GP/gn



PLT-C-2019-0014
GP/gn

AURKIBIDEA

- 1.- AGIRI HONEN OBJEKTUA
- 2.- AURREKARIAK ETA KONTRATUAREN OBJEKTUA
- 3.- LAGINKETA ESTRATEGIAREN IRISMENAREN ESTIMAZIOA
- 4.- EPEA
- 5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
- 6.- NEURKETA ETA ORDAINKETA

ERANSKINAK:

1. ERANSKINA - PROIEKTUAREN PLANOAK



PLT-C-2019-0014
GP/gn

PRESKIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1.- AGIRI HONEN OBJEKTUA

Preskripzio teknikoaren agiri honen objektua da lanak deskribatu eta definitzea, eta baldintza teknikoak finkatzea, zerbitzu kontratu honi dagokionez: Astigarragan, GI-2132 errepidea 27. poligonoarekin lotzeko lanek eragindako 20903-00095 lurzati inbentariatuaren azaleko lurzoruaren kalitatea aztertzea.

2.- AURREKARIAK ETA KONTRATUAREN OBJEKTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak errepide berri bat egitea proiektatu du, Astigarragan, GI-2132 errepidea eta Donostiako 27. poligonoa lotzeko. Proiektatutako obrek partzialki eragiten dute *lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten inbentarioan (20903-00095 kodea)* sartutako kokapenean, aurreikusten da, hortaz, kokaleku horretan dauden lurren azaleko indusketa bat egitea.

Lur horien erabilpenean aldaketak emango direnez, eta, eraikuntza arazoak tarteko, lurak ere mugituko direnez, ezinbestekoa da hasiera ematea Lurzoruaren Kalitatearen Deklarazioaren inguruko administrazio prozedurari (4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, 23. artikulua).

1. eranskinak jasotzen ditu eragindako kokalekuari dagozkion proiektuko planoak.

Kontratuaren objektua da, beraz, lurzoruaren kalitatearen ikerketa egitea eta aipatutako kokalekuari dagozkion eraikuntza beharregatik egin beharreko indusketa plana idaztea.

Kontratuan, besteak beste, jarduera hauek sartuko dira:

Oinarrizko datuen bilketa

Azterketa historikoa: aztertu behar den eremuari buruzko informazio historikoa biltzea, hainbat informazio iturri erabiliz

Ingurune fisikoaren azterketa: kutsadura barreiatzeko bideak aztertzea, zeinak kokalekuaren kontzeptuzko eredu bat definitzea ahalbidetuko duen, esposizio eta barreiatze arriskuei dagokienez.

Lanlekura bisitak: bildutako informazioa egiaztatzea eta handitzea, eta kokalekuaren egungo egoera aztertzea.

Kontzeptu eredu bat egitea: hipotesi bat garatzea kontzeptu hauen inguruan: kokalekuan dauden substantziak, horiek nola banatzen diren espazioan, migrazio ibilbide eta bide posibleak eta hartzaile potentzialen esposizio bideak.

Laginketa eta azterketa estrategiaren diseinua: zehaztea laginketarako bitartekoak, laginketa puntuen kopurua eta kokapena, laginketa teknikak eta analisiaren parametroak

Landa lanak: diseinatutako strategiaren arabera laginak hartzea eta ondoren laborategira bidaltzea

Emaitzak interpretatzea: kontrastatzea analisisen emaitzak indarrean dagoen legediak zehaztutako estandarrekin, eta luraren egungo edo etorkizuneko erabilerarekin adostasuna aitortzea

Miaketa ikerketari buruzko txostena idaztea

Eraikuntza beharregatik egin beharreko indusketa plana idaztea

3.- LAGINKETA ESTRATEGIAREN IRISMENAREN ESTIMAZIOA

Eskueran dagoen informazioa oinarri hartuz, miaketa ikerketarako uste da beharrezkoa izango dela 5 laginketa puntutan laginak hartzea, kalikata bidez, non 9 lagin aukeratuko diren laborategian aztertzeko; horietan, gainera, «4/2015 Legea, AB-EBA + TPH C6-C40» pakete analitikoa zehaztuko da; osagarri gisa, 6



PLT-C-2019-0014
GP/gn

lagin misto hartuko dira, hondakin gisa karakterizatzeko, horien gainean «Hondakin» pakete analitikoak zehaztuta. Lagin horien bitartez etorkizunean indusketa soberakinak kudeatzeko bideei buruzko aurretiazko datuak lortuko dira.

«4/2015 Legea, AB-EBA + TPH C6-C40» pakete analitikoak oinarri ditu 4/2015 Legearen III. eranskinak jasotzen dituen «A ebaluazioko balio adierazleak eta B ebaluazioko balio adierazleak» taulak, baita 9/2005 Errege Dekretuak jasotzen dituen petrolioaren guztizko hidrokarburoak ere (TPH), hauen zehaztapena barne:

Metalak (As, Cd, Cr, Cu, Hg, Ni, Pb, Zn, Mo), guztizko zianuroak

Konposatu aromatiko lurrunkorrak (BTEX eta estirenoa), fenolak, 8PAH hidrokarburo aromatiko poliziklikoak, petrolioaren guztizkoa hidrokarburoak

Konposatu organo-halogenatu lurrunkorrak, klorobentzenoak, klorofenolak, poliklorobifeniloak, pestizida organiko klorodunak

Azetona

«Hondakin» pakete analitikoak, 1. taulan oinarrituta. Hondakindegia mota bakoitzaren onarpeneko muga balioak, 2009ko otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera, zeinak hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen, hauen zehaztapena barne:

Parametroak hondakin solidoan:

- (GKO) Guztizko karbono organikoa
- BTEX (bentzenoa, toluenoa, etilbentzenoa eta xilenoak)
- PCB (poliklorobifeniloak)
- PAH (hidrokarburo aromatiko poliziklikoak): 16 konposatu
- Olio minerala (C10-C40)

Lixibiazio saiakuntza (UNE-EN 12457-4, L/S=10l/kg (mg/kg materia lehor):

- Metalak: Sb, As, Cd, Cr guztizkoa, Cu, Hg, Mo, Ni, Pb, Sb, Se, Zn, Ba
- Fluoruroa
- Kloruroa
- Sulfatoa
- Fenol indizea
- (DKO)Disolbatutako karbono organikoa

Era berean, lur azpiko uren laginak hartzeko piezometro bat jarriko da. Piezometro horretatik lur azpiko uraren lagin bat hartuko da aztertzeko. Azterketa hori egiteko, urei egokitutako «4/2015 Legea, AB-EBA + TPH C6-C40» pakete analitikoak erabiliko dira, pH-aren, tenperaturaren eta eroankortasunaren in situ neurketa barne.

Laginketaren kalitate kontrolak eskatuko dira, besteak beste, garraioko tenperatura kontrolatzea eta laginketa zurguneak egitea, eta ulertzen da kalitate kontrol horren kostua kontratuaren prezioaren barne dagoela.

4.- EPEA



PLT-C-2019-0014
GP/gn

6 astekoa izango da kontratu honen lanak gauzatzeko epea, miaketa ikerketa fasea eta indusketa planaren idazketa barne.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Jarraian zehazten da kontratu honi dagokion zenbateko ekonomikoaren justifikazioa. Justifikazio hau gutxi gorabeherakoa da, hartu beharreko lagin kopurua eta egin beharreko azterketa kopurua aldakorra baita.

| Unit. | Kontzeptua | Neurketa | Unit. prezioa | Guztira |
|-------|--|----------|---------------|----------|
| O.P. | Miaketa ikerketa | 1 | 5000 | 5.000,00 |
| O.P. | Ikerketa zehatza | 0 | 5000 | 0,00 |
| O.P. | Indusketa plana | 1 | 1500 | 1.500,00 |
| O.P. | Ekipoak garraiatu eta kentzea eta kalikatak egitea | 1 | 1000 | 1.000,00 |
| Unit. | Piezometroa jartzea 7 metroraio | 1 | 2000 | 2.000,00 |
| Unit. | "Ley 4/2015 VIE AB+TPH C6-C40" paketea. Lurrak | 9 | 200 | 1.800,00 |
| Unit. | "Ley 4/2015 VIE AB+TPH C6-C40" paketea. Urak | 1 | 200 | 200,00 |
| ml | Zundaketa edozein motako lurrean | 0 | 300 | 0,00 |

| | |
|-------------|-----------|
| GUZTIRA | 11.500,00 |
| BEZa (% 21) | 2.415,00 |

| | |
|----------------------|-----------|
| GUZTIRA (BEZa barne) | 13.915,00 |
|----------------------|-----------|

6.- NEURKETA ETA ORDAINKETA

Ordainketa bakarra egingo da, non benetan egikaritutako analitika-unitateak fakturatuko diren, kontratuaren amaierako dokumentazioa aurkeztean, hau da, miaketa ikerketari eta indusketa planari dagozkien dokumentuen paperezko bi kopia eta formatu digitaleko beste bi kopia aurkeztean.

Lortutako laginen analisiak ondorioztatzen badu ikerketa zehatz bat egiteko beharra dagoela, ez da indusketa plana idatziko, ezta fakturatuko ere.

Donostia, 2019ko urria

Obra eta Proiektuak Zuzendu eta Kontrolatzeko Ataleko burua

Sin.: Germán Pozas Zubizarreta



PLT-C-2019-0014
GP/gn



PLT-C-2019-0014
GP/gn

1. ERANSKINA

PROIEKTUKO PLANOAK